

ORIKO XORIA

EL PAJARO DE ORO

Por Antxon Narbaiza

El Ory, con sus 2.018 metros, es el «dos mil» más al Oeste de los Pirineos. Para nosotros supone nuestra primera montaña grande. En forma de roja pirámide, sobresale altivo y majestuoso entre el valle de Salazar y las tierras altas de Zuberoa.

El montañero, mientras asciende desde el collado de Ollokia, va desgranando una serie de reflexiones desordenadas que le sugiere la contemplación de los pueblos euskaldunes en los valles de las dos laderas. Se va acercando a la cumbre y se va ovidando de nuestra civilización urbana, contaminada, antinatural.

«Los pájaros del Ory no tienen ganas de conocer a los hombres que van a atacarles».

El sueño se rompe al llegar a la carretera y volverse a encontrar con el control de la aduana, extraño y ofensivo.

Udagoeneko lehen urratsetan ginen, Ustarrotzetik zehar, Lazar-gaina atzean utziz, eta «bortua» gaindurik Larraine aldera, Zuberoako lurralde berdeetara amiltzea pentsatu genuenean. Anduna errekastoa alde batera utziz, kotxeak mendizaleari ekarri dion erosotasunaz baliatuz, berehala ginen Ori erpinarren maldetan. Sasi-muga ez zen hurrun.

Halako batean, Goardia Zibil mugazainak begiztatu genituen; «ez zigutek ezer esango», pentsatu genuen, bide hauetan ez da ia inor ibiltzen. Baina, bai, bai! Gogorki, kotxetik irten erazi gintuzten eta bat batean gauza guztiak ukitzen eta berigatzen hasi: kapota jaso, jezarleku azpiak... Hantxe euki gintuzten denboralditxo batez. Etxe-

atarian zegoen zibilak irripar zegien, izorratzen ari zitzaizkigutelako nonbait. Miaketa bukatu bezain laster eta aurrera jarraitzeko agindu baino lehen, haitariko bat guregana hurbilduz, honako hau bota zigun: «Jasan behar izan dizuegun guzti «hau» zuen parajetan geldirik egon nahi ez duten haiei eskertu behar diezue».

Gure ohizko haserraldi bortitzak motorraren hots neketsuak estalerazi zituen gure protesta isil hark, ezertako balio ez zuela adierazi nahi baligu bezala. Zibilaren barrea gogoratzen genuen; barregarria duk, bai, hainbat urtetan zibilizazio, herri, kultura etabarren iraganleku neketsua izan den Pirineo zaharra, orain Estaduen doilorkeria eta handinahiagatik horrela ikustea.



Oriko tontorrako ikusia (Eli Ojanguren argazkia).

Heldu gara kaminuaren gorenera. Utzi dugu autoa tuneleko ahoan. Orira igoko gara. Eguraldiak merezi du. Ez du Oriko Lazar gainetik nabari zuen harrotasuna hemendik erakusten: «zuek bezala edonor igo daiteke niganaino»...

Bai noski, besterik zen lehen, zioen mendizale beterano batek: Otsagabiatik oinez joan-etorria eginak gara.

Gure gorputza astun da aintzinatzen, gaizki ohitua dugu. Gure oinetan Irati basoa eta Irabea aintzira zabaltzen dira, ura eta zuhaitza nahas-

tean gure ikustegarritasuna zeinek zein baino gehiago nabarmenduz... Bidezidorrak gero eta indar gehiago eskatzen digu, bat bateko nekaldi ahuek patxadaz hartu behar omen dira!

Elurgune ttipi zenbait aurkitu dugu, elur urte oparoa aurtengoa. Gure gainekaldean bele-saldo bat Oriko tontorretako bati karrakan lotzen zaio. Oso goitik dabilta hegaztiok; haranetik gora datorren tiro-hots luze baten oihartzunak biziki iratzartzen gaitu.

Mendiaren lepotik Zuberoa aldeko maldetatik



Foto Natxo Corral

uso-aldra bat «herrestan» ihesika dator gero ta gorago. Han behean, kotxe ilara luzeak asfaltoan etzanik Larraine aldera amiltzen dira; ugariago dira alajaina! hegaztiak baino. Ba ote da inor bizirik geldituko? Gure begiek gorantz begiratzten dute berriro, ezker aldeko muinoa gaindu beharra dago, aldatsa ez da gure adiskide. Ikus hor: Lakartxela, Lakora; Nork demontre ekin ote zion euskal izen hauei «La» erdal artikulua gehitzen?

Irati basotik ezin dut kendu begirik, ez omen da lehengoa. Kaminu zenbait urratu diote, haren barnera ere kotxe santuak dira biltzen eta beraiekin zaldun modernoak, nonnahi kotxeak, nonnahi gizakiaren hondakinak...

Muinoa atzera bidali dugu, oraingoan bai aurki gara gure mendiarekin bat. Gailurreko ezau-garria ukitu dugu. Patrikatik liburuska bat atera dugu: «Club Deportivo Navarra-k» duelako urte gutti argitaraturiko «rutas montaÑeras» delakoan hau irakurri dugu: «Cima del Pico ORY (2.018 m). Desde ella se contempla un dilatado panorama de insuperable belleza. Vemos la enorme selva del Irati entre la que se destaca el Pantano de Irabea con sus azuladas aguas. Al N.E. y no muy lejano entre verdes pastizales y blancos caseríos, el pueblecito francés de Larrau».

Bai, hor dira sakabanaturik harbelezko teilatuz estaliriko baserri zuriak, han hemenka bananduak.

Zuberoako lurralde berdea... Non ote da euskaldunon jatorrizko hitza galdu?... Eta non ote Larrañe, hire «frantseztasuna» nabaritzen, hire sarrerako gendarmeengan, edo hire etxaldea

erostera etorri arrotzarengan edo Bordeletik uso-ihizera hubildua den beste horrengan? Ez noski, hire zelaietan bakardade behartuan, artzain den zuberotar bakarti horrengan.

Hiru ordu laurden ozta-ozta, bat-bateko igoera hauek, lartxo dira guretzat... Beharbada energia-iturrien arazoa konpondu ondoren teleferiko bana ezarriko diegu gure mendirik inportanteenei eta dirurik gelditzen bada taberna-restaurant bat, koloredun telebista eder batez dotoretua... Arnasa bere onera etorri zaigu; salbatu gara, oraingo ez gara itoko. Mendiko haizea osasungarria duk, baina patxadaz irentsiz, hiritar adiskidea! Kontraste handiegia izan zu hukek bestela... Gailurrean hago. Hire ohizko problemen abstrazio egin nahi izango huke, hau, hori eta ahaztu: «biziak merezi dik, diok ozenki». «Baina alferrik ezin, hau, hori eta hura hire betiko zama hori hezurretaraino sartua duk, hire gorputz egitura-ren zati bat duk iñuzente!».

Erlojuari begiratu diot, ordu erdi konturatu gabe joan zait, beherantz egiteko garai da; be-leak aldegiten dute, haizea atera da, behe-beheko maldan zibilen etxea dakusat, non garen zalan-tzarik izan ez dezagun.

Ori mendik ez du zelataririk behar, mendeen jarraian bere bakardadean, haize eta elur, tximista eta hodei, ez du gizonaren beharrik izan.

Oriko txoriak ez du bere buruari suzko harmez eraso egingo dion gizairik ezagutu nahi.

Autoa hartu dugu. Beherantz berriro. Zibilek ezagutu gaituzte. Gorantz gentozelako operazio berdinez hasten dira. Gure ametsak ez du luze iraun.